



Ikasturteko plana

Ikastetxea: IES ABADIÑO BHI
Ikasturtea: 2015-2016

Helburu nagusia

1. Eremu instituzionala

1.1. Ikastetxearen antolakuntza Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Organo gorena						
Eskola kontseilua	Aurten eskolan parte hartzen duten estamentuei HNParen helburu eta ekintzaz informatzea eta beraien oniritzia eta iradokizunak kontuan izatea.(2014-18 plana)	Aurtengo helburu eta ekintzaz informatuta daude	Eskola Kontseiluko kideei 2014-15rako plana azaldu eta eskuragarri jarriko zaie. Honekin batera, institutuko webgunean ere lotura jarriko dugu. Lotura hori martxan jartzen denean, kideei Urteko Plana non begiratu ahal duten esango diegu, eta animatu ikusteko.	HNTA+ Zuzendaria	Urriko kontseilu eskolarrean, eta web gunean aldaketa txikiak egin ahal direnean	Urteko planaren kopia eta web orria
		Ekarpenak eskatu eta erantsi egin dira.	Eskola Kontseiluko kideei ekarpenak egitea eskatuko diegu. Iradokizunak HNATari bidaltzeko eskatuko diegu. Bereziki atal zehatz batzuetako ekarpenak eskatuko zaie (gurasoen partaidetza eta motibazioa, eta eskolaz kanpoko ekintzetaz, adibidez). Ekarpenak urteko memorian edo/eta hurrengo urteko planean txertatuko dira, Urritik aurrera jasoz gero.	HNTA	1. kontseilu eskolarrean, eta berriz gogoraziko da 3. hiru hilabetean	web gunea eta HNTAren posta elektronikoa
	Ikastetxe osoaren inplikazioa lortzea normalizazioaren bidean: Eskola Kontseiluaren kanporako ohar eta gutunak	Eskola Kontseiluaren inplikazioa idatziz adierazita	Eskola Kontseiluak berak sortuta eta bere izenean bidaliko dituen ohar eta gutunen orri-oinean hauetako adierazpen bat txertatuko du: <input type="checkbox"/> Bakoitzak berea, euskerua gurea. <input type="checkbox"/> Besteren hizkuntza, ona; norbera, askoz hobea.	Zuzendaria + HNAT	Iraila-ekaina (hiruhilabete bakoitzaren amaieran jarraipena).	Ohar eta gutun mota: <input type="checkbox"/> Guraso guztientzat deialdia, gonbidapen eta abarrak... <input type="checkbox"/> Eskola Kontseiluaren ziurtagiriak. <input type="checkbox"/> Eskola Kontseiluaren zinpeko aitorenpetan. <input type="checkbox"/> Eskola Kontseiluaren sinadura behar duten dokumentuetan (ikastetxeak berak sortuta).
Gurasoak (partaidetza, inplikazioa)	Gurasoei HNParen helburu eta ekintzaz informatzea eta beraien oniritzia eta iradokizunak kontuan izatea. (2014-18 plana)	elkarlana eta bitartekaritza eratuta.	Gutxienez guraso Elkarteak kide bat kontaktu gisa egotea Normalkuntza eta gurasoen artean (iazkoa, Guraso elkarteak burua dena, lehenetsi), eta Gurasoen batzordea eratzea. Ahal den neurrian iazko gurasoak ere jarraitzea.	HNTA+ Zuzendaria	Irailan hasi	Guraso elkarte
			Aginte Organoetako guraso ordezkari direnekin egon, haiekin batera proposamenak eta hausnarketak beste gurasoei nola helarazi adosteko.	HNAT+ Zuzendaria	Urrian	Guraso Elkarte
Zuzendaritza	Zuzendaritza, HNBatzorde eta abarren arteko koordinazioa izatea, informazioa erraz elkartrukatzeko bideak jartzea, eta haiengandik dauden ekarpenak jasotzea. (2014-18 plana)	Zuzendaritzako taldekide batek bileren informazioa eduki du	HNPn inplikazio zuzena izatea eskatuko zaio: • Zuzendaritzako nor joango den zehaztutako HNBko bileretara zehaztu. • Batzarren egutegia finkatzea. • Zuzendaritzatik zereginak adostea. Klaustroetan azalpenak egiteko tartea, erabakiak gogoratzeko, bere zereginak adosteko	HNB+ Zuzendaritzako kidea (Ikasketa burua)	Urrian	
	Dokumentazio osoa euskaraz izatea eta euskaraz erabiltzea. (2014-2018 plana).	Euskarazko dokumentuak erabili dira.	Irakasleen artean, euskaraz idatzita dauden Urteko Plana eta Urteko Memoria baino ez zabaltzea eskatuko diegu Zuzendaritzakoei. Gaztelarazko bertsoia hala eskatzen dutenei zabalduko zaie soilik.	Zuzendaria	Urrian eta 3. hiru hilabetean gogorarazi	HNP Urteko plana eta Urteko memoria.
	Zuzendaritzak Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuaren aldeko apustu zintzoa egitea eta eskolako edozein ekintzatan euskararen presentzia bermatzea. (2014-18 plana)	Euskeraren presentzia nagusia izan da (ekintzen % 80)	Ikastetxean egingo diren ekitaldi berezietan/jaietan... euskarazko ekintzak (jolas, hitzaldi, bideo, eta abar) proposatu eta bultzatu.	HNTA + zuzendaritza	Euskeraren egunean, Gabonak aurreko eguna, ...	
	Zuzendaritzak Hizkuntza Normalkuntzako	Zuzendaritzako partaideen artean euskera	Eredu garen neurrian, bai irakasle, langile ez		hiruhilabetero	Mahai gaineko triangeluak, hurrengo testu edo

	Proiektuaren aldeko apustu zintzoa egitea	erabili da (era informal eta formalean)	irakasle zein gurasoen aurrean, gure artean komunikatzeko euskera erabili.	Zuzendaria	gogorarazi	antzerakoarekin: "eredugarri zara: erabili nazazu" Sinatuta: Euskara
	Zuzendaritzak Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuaren aldeko apustu zintzoa egitea eta eskolako edozein ekingintza euskararen presentzia bermatzea (14-18 Plana)	Irakasle etorri-berriei eta ordezkoei informazioa eta erabakiak emanda	HNATarekin batera, ikasturterako irakasle berri zein ordezkoei Normalkuntzaren planaren barruan dauden egitasmoak azalduko dizkie. Horrekin batera, hartutako konpromisoa eta euskararen erabilerekin jokabideak azalduko dizkie.	Zuzendaritza + HNAT	Irailan. Ordezkoa datorrenean	HNP 14-18, 2015-16 urteko Plana, Hezkuntza Proiektua, AJA ...
Dok. administratiboak, ekonomia	Dokumentazio osoa euskaraz izatea eta euskaraz erabiltzea. (2014-18 plana)	Dokumentu berriak euskeraz izatea eta lehenagotik erderaz soilik zegoena euskeratzen hasita.	HNB Zuzendariarekin batera ditugun dokumento nagusi ofizialak aztertu; Ikusi da AJA delakoa euskaratzeko falta den bakarra dela, eta amaitzeko epeak finkatu, behar den laguntza zehaztu eta eskatu.	HNB+ Zuzendaritza	Abenduan	Institutuaren Urteko Plana, Memoria, Hezkuntza Plana eta abar .
Jakinarazpenak Mediateka						
Espazioaren hizkuntza-antolaketa, hizkuntza paisaia	Hizkuntza paisaian eragitea: ikasgela, tailer eta aretoetako idazpuruak euskaraz izaten jarraitzea (2014-2018 plana)	Euskaraz jarraitzen du	Ikasgeletako iragarki tauletan barruko ohar eta lan dokumentu, txantiloak eta bestelakoak euskaraz jarriko dira. Arreta berezia izango dugu irakasleok ikasgeletan jarriko ditugun ohar, mezu, zerrenda eta bestelakoekin. Jokabide hau gogoratuko dugu klustroan.	HNAT + tutoreak	Urriko klustro bileran	Ohiko oharrak eta mezuak.
	Ikastetxeko paisai linguistikoa euskaldunagoa izatea eta eskolako giro euskalduna kanpora proiektatzea (14-18 Plana).- Euskararen lehenagotik presentzia ikastetxe osoko paisaian ziurtatzea.	Agerian euskaraz dagoen lehentasuna dauka.	Ikastetxearen web gunea aztertu: <input type="checkbox"/> Sartzerakoan lehendabizi euskaraz agertzen da (gaztelaniaz ikustekoa hautazkoa da). <input type="checkbox"/> Euskarazkoan nabigatzeko euskaraz dago (ez bakarrik webgunearen edukia). <input type="checkbox"/> Aurreko biak lehenesteko behar diren pausoak eman	Zuzendaritza + HNB + informatikako arduraduna	Urtarrila	Web orria
Hizk. Normalkuntzarako egitura	HNBatzenaren barneko koordinazioa izatea, Zuzendaritzarekin eta besteekin informazioa erraz elkartrukatzeko bideak jartzea, eta haien ekarpenak jasotzea: (2014-2018 plana)	Egin beharreko lana zehaztuta, bakoitzak dituen ordu kopuruaren arabera banatuta.	Batzenaren lanak, partaide guztien artean modu koordinatuan banatu dira, beste talde eta estamentuekin informazioa elkartrukatzeko bideak jarri.	HNBko kideak	Irailan eta Urrian	
Bestelakoak						

1.2. Normalkuntza sustatzeko erabakiak Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Hezkuntza-proiektua	Hezkuntza Proiektua berriztatu behar denean, euskaraz sortzea (2014-2016 plana)	Jarraitu dugu Proiektu berria euskeraz egiten.	Ikastetxeko irakaslegoa, zuzendaritzaren gidaritzapean, hausnarketa egin eta hezkuntza proiektua euskeraz egiten jarraitzea.	Zuzendaritza	urte osoan zehar	Hezkuntza proiektua egiteko gidaliburua
Curriculum-proiektua	Normalizazioan ikastetxe osoaren inplikazioa lortzea (14-15 Plana).- Hezkuntza Proiektuak euskararekiko duen eragin positiboa mantentzea eta, ahal izatekotan, berpiztea	HParen euskararekiko aldeko jarrera indartu da.	Hezkuntza Proiektuan 14-18 HNP Planeko helburu nagusiak txertatu. Honetarako, Hezkuntza Proiektuaren sarreran 2014an egindako BRANKAren emaitzen laburpena idatzi, gaurkotze gisa.	HNAT + Zuzendaritza	Azaroan	Hezkuntza Proiektua. 14-18 HNP Plana
Hizkuntza-proiektua	Ahozkotasanaren trataeraren lanketa era formala zein informalean bultzatzea, ekingintza bereziak prestatuz, eta curriculumean txertatuz. (2014-2018 plana)	programazioetan ageri da ahozkotasanaren trataera	Batzenaren pedagogikoan mintegi buruei gogorarazi zaie programazioetan txertatu behar dela puntu hau, eta era informalean bultzatu behar dugula ikasle euskarazko ahoko komunikazioa gelatik kanpo ere.	HNAT+ mintegi buruak	Urriaren 5an	Batzenaren pedagogikoa
AJA	Zentroko funtzionamendurako dokumentazioa (AJA, memoriak...) euskaraz izatea eta euskarazko bertsiok erabiltzea. (2014-18 plana).	AJA euskaratu da (%60) eta bestelako dokumentazioa euskeraz erabili da.	Dokumentua euskeratzen ari gara. AJA-n Euskararen ikuspuntutik, berriztapena egokia den ala ez aztertuko, atal batzuk aukeratu dira eta horien gainean hausnarketa egingo dugu: <input type="checkbox"/> Eskubideak eta betebeharrak. <input type="checkbox"/> Zuzendaritzaren zereginak.	HNB+ Berritzegunea + Zuzendaria	Urtarrilean	AJA dokumentua.
Ikastetxeko kudeaketa-planak (Kalitate plana barne)						
Aurrekontua	Proposamena.- HNPa ikastetxeko aurrekontuetan agerpena eta eragina izatea eta HNP-ko erreferentziak urteko memorian txertatzea (14-18 Plana).- Ikasturteko Planeko kudeaketa ekonomikoan, proiektuaren diru beharrak onartzea bere aurrekontua aztertu ondoren	Kanpoko ikusizunaren kostea ordainduta	Eskola/institutuko jai batean (Gabonak aurreko eguna, euskararen egunean..) euskaraz den kanpoko ikusizuna ekartzeko dirulaguntza onartzeko eskatu	HNAT + irakasleak	Jai/ospakizun egunean	Abeslari, antzerki talde, mago, musika taldea, hitzaldia, kontalaria, animazioa ... zein izango den aukeratu eta aurrekosta eskatu.
Urteko memoria	Proposamena.- Normalizazioan ikastetxe osoaren inplikazioa lortzea (14-18 Plana).- Hizkuntza Normalkuntzako Urteko Planaren Memoria prestatzea eta honen emaitzak	Urteko lana eta honen emaitzak klustroan	Urteko datuen hausnarketa egin eta gero, honako atalak dituen laburpena (ppt, grafikoa, kartela...) prestatuko dugu kontseilu eskolarrean aurkezteko: • Aurtengo helburu eta eginkizun nagusiak.	HNB + HNAT + Zuzendaritza	Ekainean.	

azaltzea	plazaratu dira	• Lorpenak eta aurrera pausoak. • Partaidetza datuak. • Ikasturtearen balorazioa			
Bestelakoak					

1.3. Ikastetxearen harremanetarako hizkuntza-irizpideak Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Ikastetxeekin						
Berritzegunearekin	Hezkuntza Administrazioarekin mantentzen diren harremanak euskeraz izatea. (2014-18 Plana)	Ekarritakoa HNBan landu eta bideratu dugu.	Berritzeguneko batzarretan lantzen diren gaiak, HNBan landu, eta hala erabakitzen denean, bertatik ekarritakoa lankideei zabaldu.	HNTA	hilaftero, Berritzeguneko bileraren osteko HNBo bileran	Berritzegunear jasotakoa
	Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskeraren erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskara hutsez egitea (2010-14 Plana): Berritzegunekoekin euskeraz	Berritzegunekoekin beti euskeraz	Lankideei mezu hau helaraziko diegu (klastroan esanez, barne postaren bidez...): Gaztelaniaz diren Berritzeguneko ikastaro eta hitzaldien ebaluazio orriak euskara hutsez ere betetzea.	HNAT + Zuzendaria	Urtarrilaren eta apirilaren.	
Hezkuntza Administrazioarekin	Hezkuntza Administrazioarekin mantentzen diren harremanak euskeraz izatea. (2014-18 Plana)	Hezkuntza Administrazioarako bete beharrekoa, euskeraz bete dugu.	Irakasleok hezkuntza Administrazioarako dokumentazioa bete behar dugunean, euskeraz beteko dugu: Prestakuntza Proiektuak, eskabideak, DAE, Notetarako aktak eta txostenak, GARATU eskabideak...	Zuzendaritza, irakasleok	Kurtsioan zehar, dokumentazioa bete/bidali behar den neurrian	
	Ikastetxeak beste Ikastetxeekin, Berritzegunearekin, Hezkuntza Administrazioarekin, Instituzioekin, Elkarrekin, Enpresekin eta Hornitzaileekin dituen harremanetan euskeraren erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskara hutsez egitea (14-18 Plana).	Idatziko eta ahozko harreman gehienak (%70) euskeraz	Hezkuntza Administrazioarekin harremanak euskeraz izateko irizpideak finkatu eta klastroideei zabaldu bete ditzaten. Adosteko adibideak: • Bete beharreko txantiloak euskeraz beteko ditugu (ikastetxeko ofizialak + norbanakoarenak - eskabideak, ikastaroretan alta, baimenak eskatu... -). • Lurralde Ordezkaritzara deitzerakoan, euskeraz hasi beti eta euskerari eutsi ahal den neurrian. • Ikuskariarekin bilerak euskeraz gauzatu. Honi bidaliko zaion guztia euskeraz gutxienez. • Ikasturtero bete/prestatu/bidali beharreko dokumentu ofizialak (Zuzendaritzak, batez ere) euskeraz gutxienez egin (planak, oroitadizkiak, txostenak, datuak...).	HNB+Zuzendaritza+Klastroa	1. hiru hilabetean	
Instituzioekin						
Elkarrekin	Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskeraren erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskara hutsez egitea. (2014-18 Plana): Elkarrekin gure ikastetxearen euskara zuzena eta egokia erabiltzea.	Elkarrekin materiala euskeraz (ere) dagoela ikuskatu dugu.	Elkarrekin eskaintzen duten materiala ea euskeraz dagoen ikuskatu, eta ea euskara egokia eta zuzena den ikuskatu. • Kartelak, diptikoak eta bestelakoak gutxienez euskeraz bidaltzea eskatu (hala egiten ez badute). • Izenemate inprimakiak euskeraz (ere) bidaltzeko eskatu, eta euskeraz bete (hizkuntzaren araberako orri desberdinak badira). • Material didaktikoa erabili behar bada, euskeraz eskatu, euskara zuzena den ikuskatu, eta euskeraz erabili (idatzi beharrekoa, erakutsi edo irakurri beharrekoa...)	HNB, mintegi buruek	urtarrilaren	
	Herriko elkarrekin antolatzen diren ekintzetan parte hartzea, euskeraren ezinbesteko erabilera indartzuz. (2014-2018 Plana)	Ekintzak bultzatu dira	"Beldur Barik" taldekoek haien proposamena luzatzea gazteei. Berbaro elkarrekin udalarekin duen akordioagatik sortutako aisialdi taldeak azaltzea bere proposamena ...	Zuzendaritza	Irailean	
	Euskal Erakundeekin eta bestelako erakunde eskaldunekin euskara ahoz eta idatziz erabiltzeko konpromisoari eustea.	Idatziko eta ahozko harreman gehienak (%80) euskeraz.	Euskal elkarrekin harremanak euskeraz izateko irizpideak finkatu eta klastroideei zabaldu bete ditzaten. Protokoloa osatu eta adostu. Protokolorako adibideak: • Urteko planean jasota dauden ekimenetan, kanpoko elkarrekin esku-hartzea dutenak aukeratu: ikastaroak, txangoak, geletara etorrera, ekintza osagarriak, eskolaz kanpoko ekintzak, kolaborazioarako hitzarmenak ... • Elkarrekin hauen esku-hartzea euskeraz izango den/izan daitekeen aztertu. • Euskeraz ere gauzatzeko aukera eskaintzen badute, euskerazko esku-hartzea eskaintzen ez badute, euskeraz eskaintzen dute beste elkarrekin bat topatzen saiatu. • Ikastetxeko zuzendaritza eta ekintzen arduradunekin komentatu eta adostu. • Bete beharreko eskabide	HNB+Zuzendaritza+Klastroa	1. hiru hilabetean	Harremanetarako irizpideren adibideak.

			edo hitzarmenak euskaraz beteko ditugu). • Elkarte batera deitzaerakoan (Kirol, kultur, ekimen sozialeko elkarteak) euskaraz hasi beti eta euskarari eutsi ahal den neurrian. • Ordezkariekin bilerak euskaraz gauzatu. Honi bidaliko zaion guztia euskaraz gutxienez. • Elkartearekin bete/prestatu/bidali beharreko dokumentu (Zuzendaritzak, batez ere) euskaraz gutxienez egin (planak, oroitidazkiak, txostenak, datuak...).			
Enpresekin						
Hornitzaileekin	Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskararen erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskera hutsez egitea. (2014-18 Plana).	Hartuemonak iaz baino euskaldunagoak dira.	Kanpoko enpresek bidalitako pertsonalgo euskaldunarekin euskaraz egin, ikasturtero birgogoratu behar diren ekintzen eta akordioen zerrendan jarri.	Zuzendaria + Irakasle guztiak	Gogorarazi Azaroan eta Otsailean.	
	Ikastetxeak dituen kanpoko harremanetan euskararen erabilera lehenestea eta, ahal denean, euskera hutsez egitea. (2014-18 Plana): Hornitzaile euskaldunek zerbitzua euskaraz izateko aukera izatea	Zerbitzua euskaraz eskaini digute/diegu.	Gure eskaerak idatziz euskaraz (ere).	HNAT+ Idazkaria	Azaroan eta Otsailean gogorarazi.	

1.4. Eskola eta eragileen arteko elkar hartzea Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
EBPN						
Ikastetxeen arteko jarduerak	Beste ikastetxeekin dagoen erabilera mailari eustea. (2014-18 plana)	Gogoratzeko mezuak bidali dira	Irakasle eta idazkariari gogorarazi beste ikastetxeekin ditugun euskarazko harremanak mantendu behar ditugula. Eutsi beharreko oinarritzko harremanak hauek dira: • Ahoz, telefonoz beste ikastetxe batetik deitzen dugutenean, edo geuk deitzen dugunean. • Ahoz ikastaro, ekintza komun eta batzarretan beste ikastetxeko irakaslerekin egoten garenean. • Idatziz, beste ikastetxe batera oharrak zein dokumentazioa bidaltzen dugunean. Ikasturtero birgogoratu behar diren ekintzen eta akordioen zerrendan kokatu.	HNAT + eskolen arteko ekintza/proiektuen partaideak (IK/KI, adibidez)	Urrian	
	Beste ikastetxe batzuek dituzten euskararen inguruko jarduerak partekatzea.	Inguruko ikastetxeek eskainitako euskararen inguruko jarduerak partekatu ditugu.	Inguruko ikastetxeekin partekatu nola egin ekintza bat, alegia, bakoitzak bere ikastetxean (edo elkarrekin) nola egin elkarrekin prestatu. Adibidez.- • Euskera mintegien arteko elkarlana. • Ikasturte amaierako txangoa. Elkartzeko data, tokia eta gaiak aurrez prestatu, eta parte hartuko duten ikastetxeen artean adostu.	Ikastetxeetako HNATak + HNBetako kideren bat.	2. eta 3. hiru hilabeteen	Ikastetxeen orain arteko egitarauak eta ekintzak.
Herriko euskara-elkarteak	Erabilera mailari eustea (2014-18 plana): Euskara elkartearen bidez proiektu eta jardueretan parte hartzea bultzatzea	Proposamena egina.	Euskara Elkartetatik datozen deialdi eta gonbidapenak, HNBan aztertu; guraso, ikasle eta irakasleen artean zabaltzeko bideak prestatu.	HNBko partaideak	Deialdiak, ekintzak, lehiaketak, ... heltzen direnean	
	Euskararen aldeko herriko eskaintzan parte hartzea.	Elkarteen ekimenen berri jasota.	Euskara Elkarteko arduraduna eskolara gonbidatu urteko jarduerak azaltzeko. Euskararen egunean, adibidez Elkarteren bat: • BERBARO. • GEREDIA • TOPAGUNEA • Euskal Herrian Euskaraz • Bai Euskarari • Kafe Antzokia.	HNAT-HNB-Klaustroa	Abenduan	
Bestelako elkarteak	Erabilera mailari eustea (2014-18 plana): Bestelako elkarteekin harremanetan jartzean euskara lehenesten jarraitzea.	Erabilera-maila mantentzeko ohar gogoragarria bidalita.	Irakasle eta langile ez irakasleei gogorarazi elkarteekin ditugun harremanetan euskara lehenesten jarraitu behar dugula. Eutsi beharreko oinarritzko harremanak hauek dira: • Ahoz, telefonoz elkarte batetik deitzen dugutenean, edo geuk deitzen dugunean. • Ahoz ikastaro, ekintza komun eta batzarretan elkarte bateko kideekin egoten garenean. • Idatziz, elkarte batera oharrak zein dokumentazioa bidaltzen dugunean. Ikasturtero birgogoratu behar diren ekintzen eta akordioen zerrendan kokatu.	HNAT	hiru hilabetero	
	Hezkuntza formalaren eta ez formala euskaraz eskaintzen duten erakunde euskaldunekin harremanak izatea	Ikastetxeaz kanpoko hezkuntza erakundeekin harremanak izatea.	Herriko elkarteekin eskolaz kanpoko ekintzetan eta eskolako ekintza osagarrietan (ikastetxearen jai-egunetan, adibidez) parte hartzeko aukerak ikusi. Ikastetxera haien sarbidea eta baldintzak adostu. Adibidez.- • Aisialdia elkarteak. • Antzerki taldeak. • Bertso elkarteak. • Mendizale elkarteak...	HNAT + Zuzendaritza	Azaroan	
Euskal komunikabideak	Erabilera mailari eustea (2014-18 plana): eskuragarri daude estamentu guztientzako.	Komunikabideen berri areagotuta.	Ikastetxeen euskal prentsa eta idazkariak (azken aleak) modu erabilgarri/erakargarrian utzi, sarrerako erakustokian, denon eskura. Ale zaharrenak liburutegian kokatu, ordenaz eta erabilgarri, ikasle eta irakasleen esku.	HNB	hilero	
Bestelakoak						

2. Eskolako kideen hizkuntzako prestakuntza eta erabilera

2.1. Ikasleak Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Komunikazio-gaitasuna	Ikasleen komunikazio gaitasuna hobetzea.	Landutako akatsak orokorrean zuzenduta daude.	Akatsak eta esamolde okerrak zuzendu. Euskal Herriko Unibertsitateko EHULKU materiala aztertu, aurtun lantzeko batzuk aukeratu eta tutoretzan edo euskara klasean eman.	Euskera mintegiko irakasleak bereziki baina irakasle guztiok egin behar dugun lana.	Materialaren aukeraketa.- Urrian. Lanketa.- Astearen behin, klasearen hasieran edo amaieran	EHULKU materiala: http://www.ehu.es/eu/web/euskara/ehulkuren-aholku-guztiak
	Ikasgela barruan euskararen erabilera sendotzea. (2014-18 plana): Gela barruan euskaraz adierazteko aukerak ematea.	Ahozko partaidetza egiteko aukera egon da. Ikasle guztiok parte hartu dute..	"Ikasgai batzuetan proiekturen edo talde kooperatiboetan egituraren bat egiteko aukera ikusi. Ikasturtean zehar proiektu edo egituraren bat prestatu ikasgai bakoitzean non ahozko azalpena beti euskaraz izango den."	HNB + mintegi buruak	Urrian planifikatu eta ikasturtean zehar martxan jarri.	
Interakzio didaktikoa	Ikasgela barruan zein kanpo, ikasleek irakasleekin euskaraz hitz egitea (2014-2018 plana):	Gela barruan jokabide berdinarik adostuta.	Ikasleak erdera zuzentzen direnean, ZER? galdetzea, SISTEMATIKOKI, bestela erantzunik emango ez delarik.	irakaslegoa	Urrian komentatu ordutik aurrera gauzatzeko..	
	Ahozko adierazpena lantzea.	ahozko hizkuntza bereziki landu da.	Irudien deskribapen laburra klaseko jardueretan landu: klaseko lanak egiterakoan, bertan erabiltzen den materialaren artean irudiak agertzen direnean, irudi horien ezaugarriak deskribatzea eskatuko dugu, adibidez natura, geografia, historia, inguru, gizarte... eta horrelako ikasgaietan. • Ikasleek banaka edo binaka argazki/irudiren batean dagoena deskribatu. Egiten denean, Klase-orduaren 2-3 minutu erabili, gehienez, irudi bat edo bi deskribatzeko (adibidez, aurreko eguneko errepasso moduan). • Ahozko deskribapenerako urratsak eman (euskera mintegikoen eta Berritzegunekoen orientabideekin).	HNB+ Mintegi Buruak+arlovak irakasleak (Ikasgaiak ematen duten irakasle eta tutoreekin adostu lanketa hau)	Urrian komentatu urritik aurrera gauzatzeko..	Klaseko lanerako erabiltzen diren argazki irudiak (ppt, liburukoak, internetekoak...)
Partaidetza, inplikazioa	Ikasleei protagonismoa eman euskararen erabilera bultzatzeko. (2014.2018):	Partaidetza ziurtatu da.	Une jakin batzuetan ikasleei deitu haiekin batera ekintzak antolatzeko: • Euskararen Eguna. • Gabonak aurreko azken eguna.	HNB + Ikasleak+ Zuzendaritza	Urrian, Abenduan.	
	Ikasleen euskera batzordeari protagonismoa eman euskararen erabilera bultzatzeko. (2014-2018): Ikasleentzat gustuko ekintza motibagarriak antolatu ahal izatea. Antolakuntza eta gauzatzeko prozesuak euskaraz izatea.	Ikasleek beraiek antolatu dute.	Euskararen eguna ikasleek antolatu. • Ikasle taldea sortzen lagundu. • Eurekin elkartu, eta haiekin batera egun horretarako ekimenak prestatzen eta erabakitzen lagundu. • Baldintza eta arauak haiekin batera zehaztu. • Lana taldeka antolatu eta aurrera ateratzen lagundu: aholkuak eta baliabideak.	HNB + Ikasleak + Tutoreak	irailak 21, Urriak 19, Azaroak 9 eta 30 eta 2016. urteko datak Abenduan zehar zehaztuko dira.	
Motibazioa, girotea	Ikasleen euskera batzordeari protagonismoa eman euskararen erabilera bultzatzeko. (2014.2018):	Ikasleek egindako proposamen egokiak kontutan hartu dira eta haiekin batera aurrera eramane dira.	Deialdia egin da, ikasle batzordea antolatzeko, eta bileren egutegia zehaztu da, helburuak, bitartekoak eta abar zehaztuz.	HNAT	Irailean	
	Ikasgelatik kanpo euskararen erabilera sendotzea: jolastokia eta jantokia. (2014.2018):	lehiaketak, ekintzak,... antolatu dira	jolasak (yinkana, adibidez), lehiaketak, tailerrak antolatzea atsedendietan eta kasuren baten (xake, briska,...) ere eguerdian, jantokia baino lehen.	HNB + Ikasleak+ Zuzendaritza	2. eta 3. hiru hilabetean	
			bideo emanaldiak eta pertsona esanguratsuen hitzaldiak (ikasleak?), euskararen inguruan egindako apostuaren onurak agerian uzteko. (Harro egon gaitzen egindakoak, eta jakin dezagun zer dagoen gure esku hobekuntza bide horretatik jarraitzeko.)	HNB+ ikasleak	2. eta 3. hiru hilabetean	
	Euskaraz diren ekintzetan partaidetza areagotzea.	Euskaraz diren ekintzak ezagutu dituzte.	Euskaraz diren herriko/inguruko ekimenen zerrenda eta egutegia osatu: elkarte eta instituzioen eskaintzak.	HNB+Tutoreak	Azaroko tutoretza orduetan	Udala, Aldundi eta herriko elkarteak

2.2. Irakasleak Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Metodologia. Interakzio didaktikoa	Metodologia: Ikasleen ahozko azalpenak curriculumean txertatzea eta baloratzea. (2014-2018 Plana)	Mintegietako programazioetan ageri da.	Kontseilu pedagogikoko gogoratu ahozkotasanunaren garrantzia, eta honi buruz hausnartu.	HNAT +mintegi buruak	Urriaren lehen bileran	
Komunikazio-gaitasuna	Elkarlana edo autoformakuntza bidez euskara eta euskal kulturarekin lotura duten gaietan janztea. Euskera maila (ahozkoa eta idatzizkoa) hobetzea (2014-18 plana):	Irakasleen beharrak detektatu dira, eta aholku gramatikalekin ohar laburrak bidali dira emailaz.	Gure euskera maila hobetzeko ditugun beharrak detektatzeko galdetegia pasatu da, eta ahal den neurrian barneko korreoz autoikaskuntzarako aukerak: akatsak nola zuzendu, aholku gramatikalak eta antzerakoak bidali.	HNAT+ irakasleak	galdetegia Urrian pasatuko da, eta hileroko igorriko dira aholkuak.	
	Irakasleen euskara maila aberastea eta elikatzea (2014-18 plana): Euskarazko materiala erabiltzea	Interneten erabilera euskeraz sustatu da	• Irakasleek (gaztelaniakoak salbu) euskeraz dauden loturak lehenetsi; dena den, erdarazkoa erabiltzean itzulpengintza landu. Zuzen (zuzentzaile ortografikoa), Hiztegiak eta itzulpen laburrak on line egiteko aukerak ezagutarazi. • Sistema eragileak euskaraz jartzea, ahal denean. • Euskaraz dagoen bilatzailea nola lehenatu irakatsi. • Euskal erakunde publikoetako webguneetan, EU euskeraz nabigatzeko ikurra sakatzen eta erabiltzen ohitu.	HNB + Premia arduraduna + irakasleak	Azaroan eta Otsailean gogorarazi.	
	Irakasle on arteko euskararen kalitatea handitzea.	Irakasle on kalitatea handitzeko aukerak emanda	Autoikaskuntza: ZALANTZA-DANTZA liburuxkaren edukiak partekatu: hilean behin, liburuxkaren eduki bat zabaltu. Zabaltze bideak: barne e-posta, iragarki taulak, Zuzendariaren barne mezuetan orri-oina...	HNB	hileroko	ZALANTZA-DANTZA liburuxkaren edukiak euskarri digitalean.
Prestakuntza	Irakasleen euskara maila aberastea eta elikatzea (2014-2018 Plana)	Galdetegia pasatu da eta proposamena egin da.	Gure euskera maila hobetzeko ditugun beharrak detektatzeko galdetegia pasatu eta 2016-17rako institutuan bertan behar horiek asetuko dituen IRALE ikastaroa zehaztu.	HNB	Urtarrilean galdetegia pasatu. Otsailerako edo martxorako proposamena egin.	Berritzeguneko zuzenketarako proposamenak
Irakasle on arteko interakzioa	Irakasle on euskara maila aberastea eta elikatzea (2014-18 plana): ulibarri programa.	Ulibarri.info denek ezagutzen dute.	Klaustrokide berriei ulibarri.info erakutsi.	HNAT	1. hiruhilabeteko Klaustro baten amaieran	ulibarri.info web orria
	Irakasle on ikasleekin gure euskalkia ahozkoan erabiltzea, egoera formal zein informaletan. (2014-2018 Plana)	Ahozkoan behintzat bizkaieraz egin dogu eta mezu, idazki, hormairudi eta abarretan bizkaieraren presentzia gehitu dogu.	Ahozkoan bizkaieraz egin, bakoitzaren ezagutzaren arabera, ahal denean, idazkietan ere horrela agertu eta egunerokotasunean gure euskalkia ahalik eta esparrurik zabalenera hedatuko dogu. HNATA eta HNBaren oharrak, mezuak, Urteko Plana, gidak, egitarauak... bizkaieraz idazten hasi. (Memoriaren iruzkina).	Irakasleak	Urrian, urtarrilean eta apirilean gogorarazi	Bizkaieraren ezagupena, gogoia eta bultzatzeko beharrezko jabetza.
	Irakasle on artean Ahozko hizkuntzaren erabilera mantentzea. (2014-2018 Plana)	Gure arteko harremanak euskeraz dira.	Barne korreoz eta klaustroan gogorarazi lankideei zein garrantzitsua den gure eredu ikasleek euskera balora dezaten.	HNAT+ irakasleak	Urrian, urtarrilean eta apirilean gogorarazi	
Partaidetza, inplikazioa	Irakasle on partaidetza lortzea	Jarraipena ikasturtean zehar egina.	Klaustroari honako erabakiak hartzea proposatzea: Klaseko jardura euskara ez den beste hizkuntzaz jarduten dute irakasle on, ikasgelaz kanpo, ikasle guztiekin euskeraz hitz egiteari eutsiko dogu .	HNAT+Zuzendaritza	Urriko klaustro bileran	
Motibazioa, girtzea	Irakasle on ikasleekin gure euskalkia ahozkoan erabiltzea, egoera formal zein informaletan. (2014-18 plana): Ikasle on motibatzea euskeraz berba egin dezaten.	Irakasle on artean ikasleekin jokabideak adostuta.	Euskeraren kortxoan (irakasle on gelan) txukun jarri irakasle on artean adostutako jokabideak: <input type="checkbox"/> Ikasle on agurrak euskeraz beti. <input type="checkbox"/> Erderakadak. <input type="checkbox"/> Akatsen autozuzenketa. <input type="checkbox"/> Hizkera garbia eta argi ahozkatua.	HNB	Urrian	Irakasle on gelako kortxo (Normalkuntzakoa)
	Irakasle on jakitea HN Plangintza zein den eta Ulibarri barruan egoteak zer suposatzen duen. (2014-18 plana): Urteko Plana ezagutaraztea.	Urteko planaren azalpena egina	Klaustroari Urteko plana azaldu. • Ikasturte hasieran klaustroaren deialdian puntu hau txertatuko da: Ulibarri programaren Urteko Plana. • Urteko Planari buruzko informazio orokorra emango da eta non aurkitu ahal duten (Driven, adibidez) azalduko zaie. Edukiak (ppt): o Ulibarri Programari buruzko azalpen laburra. o 2014-18 Plan Nagusiaren azalpen laburra. o Urteko Planaren zereginen laburpena. o Epeak, datak eta ekitzen garapenerako prozedurak azaldu. o Irakasle on guztiren laguntza behar dugula esan. • Funtzionamendurako oharrak azaldu/banatu: o HNBatzordearen partaideen izenak. o HNBatzordearen bileren egutegi eta ordutegia. o HNBatzordeari proposamenak eta iradokizunak helarazteko prozedura. o Aurrera eraman beharreko ekintzak gogorarazteko bidea: barne korreoa. Hurrengo klaustroak: balantze partzialen	HNAT + Zuzendaria	Urriko klaustroa	

			eta memoriaren berri emateko.			
	Gurasoekaz harremanetan elebitasuna agertzeko konpromezuagaz jarraitzea: batzar orokorretan... Guraso eskaldunak badira, euskeraz. (2014-18 plana):	Euskeraren lehenetsi da.	Klaustroan gogorarazi lankideei zein garrantzitsua den irakasleok dugun konpromezua euskararekiko, hots, ereduia gara ikasleen gurasoek euskerara balora dezaten. Gurasoek nola baloratzen duten euskeraren eragin nabaria bait du ikasleengan (erabileran eta sentsibilizazioan, adibidez).	HNAT+ Tutoreak	Urriko klaustroan	
	Irakaslegoaren artean euskaltasun giroa ospatzea.	euskeraz ondo pasatu dugu.	Ikastetxe/institutuko jai egunean irakasleontzat hona hau antolatuta eta garatuko dugu: euskeraz diren humorezko sketx-en emanaldi laburra (30').	HNB	Ikastetxe/institutuko jai egunean, abenduko azken klase eguna, kurtsoko azken eguna...	Sketxak: Finlandia, Gozeman/k, Brinkola

2.3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Komunikazio-gaitasuna. Prestakuntza	Dakiten erabiltzera animatzea (Agurrak, eguneroko berbak euskeraz erabiltzea). (2014-2018 Plana)	Dakiten erabiltzen dute.	"Euskal Herrian nonbait" erreportaia pasatu (https://www.youtube.com/watch?v=3aPpm0Vc2Gc), motibatze eta haien buruaren ahalmenaren konfidantza sakontzeko.	HNAT	Azaroan	https://www.youtube.com/watch?v=3aPpm0Vc2Gc
			Administrazio eta zerbitzuetako langileen euskerara maila hobetzeko dituzten beharrak detektatzeko galdetegi pasatuko da, eta ahal den neurrian korreoz edo beste bidez autoikaskuntzarako aukerak: akatsak nola zuzendu, aholku gramatikak eta antzerakoak bidali.	HNAT+ jantokiko arduradunak	Urtarrilean	
	Euskararen zuzentasunaren inguruko zalantzak argitzen laguntzea	Zalantza gehienak argitu dira..	Eguneroko jarduketan administrazio langileek izan ditzaketen euskeraren hizkuntzari buruzko zalantzak argitzeko asmoz, kontsulta sistema proposatu: ikasleei emango zaizkien etxerako ohar-motak aurrez HNBarri eman hauek iradokizunak egin ditzaten (HNATari e-postaz helarazi).	HNB + zuzendaritza	Urriko klaustro bileran proposamena	Ohar-moten ereduak
Partaidetza, inplikazioa	Eskola euskal gune bezala identifikatzea: ikastetxean ikastetxe kanpoko eskaldunekin euskeraz	Bisitari eskaldunekin euskeraz.	Ikastetxera datozen ikuskari, saltzaile, guraso, bisita, langile eta bestelako pertsonekin beti euskeraz hasteko, eta euskeraz egiteko aukera ikusteko, Harreran eta Zuzendaritza bulegoan honako kartela jarriko dugu ikusgai: HEMEN EUSKARAZ EGITEN DUGU edo EUSKERAZ, NAHI BADUZU astiro eta argi, mesedez (edo antzeko lelo bat)...	HNAT+zuzendaria+Langile ez irakasleak.	Ikasturtearen hasieran jarri. Jarraipena Urtarrilean eta maiatzean	Azalpen zuzena. Kartela bera.
Motibazioa, girotzea						

2.4. Gurasoak Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Familia tipologia						
Harreman-hizkuntza	Guraso eskaldunekin euskeraz hitz egitea. (2014-18 plana): irakasleekin bilerak, telefono deiak, emailak	Irakasleen bilera-erregistroak eta gurasoen iritzia	Bileretan, ahal den neurrian, euskerara erabili, eskaldunekin euskerara hutsez eta erdaldunekin euskararen garrantzizko agerpena ziurtatuz.	Tutoreak, Bestelako irakasleak	Urriaren gogoraziko zaie	
	Guraso eskaldunekin euskeraz hitz egitea. (2014-18 plana): bilera orokorrak	Azalpenak euskeraz ere.	Gurasoekin batzar handietan (ziklo edo etapa oso bat) ahozko azalpena euskeraz izango dira bereziki, erabiliko den ppt-a elebiduna izanik, gaztelaniazko bertsioari erreferentzia eginez azalpena euskeraz ematen den bitartean, eta banatuko den idatziko informazioa elebiduna izango da.	Zuzendaria, tutoreak	Urriak 7a	Batzarerrako power pointa
Komunikazio-gaitasuna. Prestakuntza	Gurasoen euskararen aldeko jarrera positiboa bultzatzea. Beraien jarrerak seme-alabengan duten eraginaz jabetu araztea. (2014-2018 Plana):	Informazioa bidalita	Autoikaskuntza-aukerak on line, euskerara ikasteko udaletxeko dirulaguntzen berri eta antzerako gai buruzko informazioa, seme-alaben bidez (zuzenki ezin bada) igorri.	HNAT + Tutoreak	Abenduan	ZAREA, Udaletxeko euskeraren teknikariaren mezuak,...
Motibazioa, girotzea	Gurasoen euskararen aldeko jarrera positiboa bultzatzea. Beraien jarrerak seme-alabengan duten eraginaz jabetu araztea.	Gurasoei zuzendutako eskutitz baten gutxienez gehitu da	Gurasoei zuzendutako eskutitzen oinaldean testuren bat gehitu: "Eredua zarete, beraz, erabil ezazue euskerara gaitzaren neurrian" edo antzerako beste testuren bat.	Idazkaria + HNAT	Lehen hiruhilabetean	
	Gurasoak Elkarteak eskaldunaren aldeko jarrera hartzea.	Hezkuntza eskaldunaren aldeko jarrera publikoa hartu dute.	Guraso Elkarteak, matrikulazio garaian, euskeraz ikastea eta euskeraz aritzeak neska-mutuei zein onura dakarkien azaldu gurasoei (oharra, gutuna...).	HNB+Gurasoen ordezkariak+Zuzendaritza	Matrikulazio garaian: ikasle hasi berriak, DBHra joaterakoan, Batxilergo joaterakoan	Gutunak, e-posta, matrikulazio triptikoarekin batera...

Gurasoak eragile	Gurasoak Elkarteak euskaraz erabiltzearen aldeko jarrera hartzea.	Euskara ezagutza eta erabilera indartzeko urratsak eman dira.	Guraso Elkarteak, gurasoek duten euskararen ezagutza elkarrekin aberastu eta erabili: "Mintza-lagun", "Berbalagun" eta horrelakoak publikizatu gurasoen artean; ekimena azaldu eta parte hartzea gonbidatu (oharra, gutuna...).	HNB+Gurasoen ordezkariak+Zuzendaritza	Ikasturtearen hasieran.	Afitxak eskolako kanpo aldean, gutunak, e-posta, elkarte antolatzaileen propagandarekin batera...
------------------	---	---	---	---------------------------------------	-------------------------	---

3. Gelaz kanpoko jarduerak

3.1. Eskola eragile Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Jolasaldiak	Eskolak antolatzen dituen ekintzetan euskaraz izatearen irizpidea nagusiztat hartzea.(2014-2018 Plana)	Antolatzen diren ekintzak euskaraz izan dira.	Jolasak, lehiaketak, tailerrak antolatu, ikasleen interesak kontutan hartuz. euskara ez-formala lantzeko era ludikoz.	HNB + ikasleen batzordea	2. eta 3. hiru hilabeteetan.	
Jantokia	Ikasleen hizkuntza informala sustatzea.	Atsedendian zaintzan dauden irakasleek jarraipena egin dute eta ondo burutu da.	Kiroletako hiztegia landu geletan: futbola eta saskibaloia adibidez. Gorputz heziketako klaseak ere aproposak izango litzateke ekintza hau burutzeko.	HNB+ Gorputz heziketako irakasleak	1. hiru hilabeteetan	Kirol hiztegia.
Sarrerak, irteerak	Ikasleen hizkuntza informala sustatzea.	Tutoreak jarraipena egin du eta ondo burutu da.	Goizean etxetik, jolastokitik, jangelatik, arratsaldeko saioetan, heziketa fisiko klasetik, plastika eta musika gelatik ... etortzerakoan edo ikasgeletara igotzerakoan, ikasleekin batera sartu/igo eta bai gurekin bai haien artean elkarriketatxoa sortuko dugu: • Jantokiko bazkaria. • Eskolako etxerako lanak. • Eskola orduz kanpo zer egin: kirola, akademia, musika... • Zelan aurreko klasea, autobusean, patioan ... • Zelan oporrak, asteburua ... • Telebistako programak. • Eskolako lagunak. • Eguraldia. • Eguerdiko eta arratsaldeko planak. • ...	HNB+Tutoreak	1. hiru hilabeteetan	Irakasle eragileak izendatu, txandak antolatu, ekintzaren egunak zehaztu...
Jaiak, ospakizunak	Eskolako jaietan euskararekin lotutako ekintzak aurrera eramatea.	Eskolako jaiak euskaraz kutsatu.	Ikastetxe/institutuko jai eta ospakizunetan partaidetzarako hizkuntza irizpideak finkatu: • Euskal musikaren %60. • Euskal abestien %60.	Zuzendaritza + HNB + Ikasleen ordezkariak	1. hiru hilabeteetan	
Jaiak, ospakizunak	Eskolak antolatzen dituen ekintzetan euskaraz izatearen irizpidea nagusiztat hartzea.(2014-2018 Plana)	Ekintzak euskaraz izan dira nagusiki(% 80).	Jolasak, lehiaketak, tailerrak antolatu, ikasleen interesak kontutan hartuz. euskara ez-formala lantzeko era ludikoz.	Zuzendaritza + HNB + ikasleen batzordea	Eskolak ekintza ez-formalak antolatzen dituzenean	
Jantokia	Eskolak antolatzen dituen ekintzetan euskaraz izatearen irizpidea nagusiztat hartzea.(2014-2018 Plana)	Pertsona bat ekarri da sentsibilizazio edo motibazio-jardueran.	Euskaldun berria den gazte esanguratsu bat edo bere bizitzan euskararen erabilerak izan duen garrantzia azaldu diezaiekeen norbait etorri eta saio bat garatu dugu.	HNB	Euskararen egunean ahal bada.	Ikas2deak?
Irteerak	Ikasleen hizkuntza informala sustatzea.	Tutoreak jarraipena egin du eta ondo burutu da.	Oinezko ibilbideetan elkarriketak sortu. Toki batetik bestera ari diren bitartean, irakasle bat haien inguruan ibili eta haiekin hitz egin: gauzak galdetu, eztabaida piztu, proposamenak egin, eguneroko gai bat atera, berba-jolasak egin...	HNB+irteerara doazen irakasleak	Irteera eta txangoetan.	Gai batzuk aurrez prestatu. Irakasleak antolatu txandak/taldeak aritzeko.
Egonaldiak						
Autobusa						
Eskola-kirola	Euskaraz dakiten begirale eta kirol monitoreek ikasleekin dituzten harremanak euskaraz izatea.	Udaletxeko euskara arduradunarekin berba egin da, bitartekoak jarri daitezten.	Eskolako kirol taldeen monitoreek ikasleekin erabiliko duten dokumentazioa (oharrak, egutegiak, ordutegiak...) euskara hutsez prestatzea eta banatzea.	HNB + Udaleko euskara teknikaria + Kirol monitoreak	1. hiru hilabeteetan adostu; ikasturtean zehar gauzatu.	Udaletxeko euskara zerbitzua
Aisialdia						
Bestelakoak						

3.2. Elkarteak/erakundeak eragile Esparrurako 4 ikasturteko helburuak

ERAGIN ESPARRUA	HELBURUA	EBALUAZIO ADIERAZLEA	JARDUERA	NORK	NOIZ	BALIA-BIDEAK
Jaiak, ospakizunak	Jarduerak horietan hizkuntza irizpidea kontuan hartzea eta lehenestea. (2014-	euskerazko jarduerak aurrera	IKAS2DEAK taldearen aukera lehenetsi, euskararen egunean hitzaldia antolatzeko orduan.	HNAT	Ahal bada, Abenduak 3an	

	18 plana):	eraman da.				
	Erakundeen eskaintzak euskaraz gauzatzea.	Euskaraz direnak garatu dira	Udalak egingo dituen eskaintzen artean, euskaraz direnak soilik aukeratuko ditugu: Zientzia astea, Ingurugiro programak. Drogomenpekotasunaren aurkako kanpainak. Sexu-heziketa. Arrazakeriaren aurkako tailerrak eta kanpainak. Sexu-indarkeria. Literatura lehiaketa, Herriko jaietan ekintzak Abenduaren 3a...	HNB + Zuzendaritza	Finkoak direnak irailan-urrian adostu. Ikasturtean zehar direnak, iritsi ahala.	Eskaintzak
Irteerak-egonaldiak	Erakundeen eskaintzak euskaraz gauzatzea.	Euskaraz direnak zabaldu dira.	Erakundeek eskaintzen dituzten ekintzen artean, hizlaria edo begiraleak dituztenen artean, ikasle eta familiei euskaldunak dituztenak soilik zabalduko dizkiegu.	HNB + Zuzendaritza + Tutoreak	Erabakia iraila-urrian hartu. Ekintzen zabalpidea, iritsi ahala.	
Udalekuak	Erakundeen eskaintzak euskaraz gauzatzea.	Euskaraz direnak zabaldu dira.	Erakundeek eskaintzen dituzten udalekuen artean, ikasle eta familiei euskaraz direnak soilik zabalduko dizkiegu. Euskararen txokoan jarri dugu hauei buruzko informazioa.	HNB	Ekintzen zabalpidea, iritsi ahala.	
Aisia, kirola	Jarduera horietan hizkuntz irizpidea kontuan hartzea eta lehenestea. (2014-18 plana):	Euskerazko aukerak lehenetsi dira	Udaleko euskera teknikaria eta mankomunitatekoekin elkarlanean, kirola eta aisialdia euskeraz izan dadin emandako pausuen berri hartu eta euskera lehenesten duten aukerei buruz ikasleen artean hedatu.	HNAT	Urtarrilean	Udaleko euskera kontseilua.
Erakundeen esku-hartzea	Jarduera horietan hizkuntz irizpidea kontuan hartzea eta lehenestea. (2014-18 plana):	Elkarrekintzak eratu dira.	Erakundeen partaidetza zuzenerako hizkuntza-irizpideak adostu: • Ikasle eta irakasleen aurrean ahozko azalpena badago, hizlari euskalduna etorri. • Ikasleekin lan egiteko begiraleak badatoz, begirale euskaldunak eskatu. Begiraleek argi izan behar dute hizkuntza-harreman guztiak euskaraz izan behar direla.	HNB+Berritzegunea		
Erljio-jarduerak						
Musika						
Bestelakoak						